

Sagardo Kontseilua

Aurtengo Txotxberri kanpainarekin batera sortu da Astigarragan Sagardo Kontseilua. Jakina da sagardoak eta sagardotegiek herri honetan duten garrantzia. Sagardoaren inguruko ekintzak arautu beharra ikusten dute kontseilukoek, eta sagardoa herri izaerarekin doala adierazi nahi dute. Irailaren 7an egin zen Sagardo Kontseiluko azken bilera, eta bertan arautegiak zehazteari ekin zioten eta datorren urteko Txotx Berri kanpainaren nondik-norakoak zehazten hasi ziren.

■ Txotxberri festa

Aurtengoan eta lehenago egin ez bezala, sagardogile, tabernari, herrietako talde eta herritar ugari bildu ziren 2000. urteko sagardo denboraldiari hasiera emateko. Aurtengoan, urtarilaren 13an hasi zen ofizialki Astigarragako sagardo garaia, eta handik aurrera hiru hilabetez sagardoaz gozatzeko aukera izan genuen.

■ Martxa nazionala

Uztailaren 6an iritsi zen Senideek presoen eskubideen alde antolaturiko Martxa Nazionala Astigarraga eta inguruko herrietara. 200 talderen eskuek igaro zen lekukoa, eta gazteen kontrako polizia zapalkuntza salatu nahi izan zuten parte-hartzaileek.

■ Hebe de Bonafini

Argentinako Maiatzako Plazako Amak elkarteko presidentea Astigarragan izan zen urtarilaren 19an. Bisitaldi horren helburua Buenos Airesen sortzen ari diren Herri Liburutegiaren proiekturako diru laguntza jasotzea izan zen. Herri xumea kulturarekin harremanetan jartzea du helburu Hebe de Bonafinik Astigarragan aurkeztu zuen proiektuak. Horrez gain, udaletxean bildu zirenei urte hauetan guztietan egin duten lanari buruz hitz egin zuten.

■ Santa Ana Eguna

Uztailaren 26an ospatzen dute astigarrarrek egun hau, urtero antolatzen dituzten Santio jaien barruan. Herri Kirol Batzordeak eta Zipotza elkarteak antolatzen dute eguna, eta bertan nekazaritza, base-ria eta herri-kirolen inguruko ekintzak antolatzen dituzte. Herritarrentzako kirol-frogak, idi-dema, Euskadiko trontzalari txapelketa... izan ziren ikusgai.

ren amaieran, berriz, 217».

Kultur Taldeen Kordinadora

Etorriko den jende berri hori guztia herrian txertatzeko tresna bat Herriko Taldeen Kultur Kordinadora da. Iaz bildu ziren lehengo aldiz herriko taldeak topagune honetan, eta bile-

rei jarraipena ematea erabaki zuten. Horrela, aurtengoan lau aldiz bildu dira herri taldeak Herriko Taldeen Kultur Kordinadoran.

Bilera horien helburuetako batzuk dira, besteak beste, taldeen arteko ezagutza bultzatzea, herriko jendearengana iristeko bideak asmatzea, herrian egiten diren ekintzak koordinatzea eta gogoeta egitea.


Integrazioa lortu nahian

Herriko Kultur Koordinadorak hainbat ekintza aurrera eramango ditu datorren jende hori herrian integratzen. «Egungo bizimoduaren eta urbanismo berriaren ondorioz jendeak bakarkako jarduerak hartzen ditu, eta hori dela eta, jendea Astigarragan ez da mugitzen. Horregatik, jarduera batzuk antolatu ditugu jendea hurbil dadin eta herri

Astigar
Elkartetik sortu dira
egun lanean ari
diren Astigarragako
talde ugari

ren kezka. Nahiz eta etxe hauetan biziko direnak ez diren oraindik herrira etorri, jende berri horrek guztiak herriko harremanetan sor dezakeen aldaketaz beldur dira. Astigar elkartearen esanetan, «herria aldatzeak harremanak izateko lekuak aldatzen ditu, eta, ondorioz, herriko giroa ere aldatu egiten da askotan».

Etxebizitzaren eraikuntzari dagokionez, Astigarragan 1996-2000 urteen artean eraiki dituzte etxebizitzak gehien, 208 etxebizitza hain zuzen ere. Etxebizitza horiei 2000. urteko lehenengo hilabeteetan bukatu dituztenak eta aurrerantzean bukatuko dituztenak ere gehitu behar zaizkie. Astigar Elkarteak esan dutenez, «ezin da ahaztu etxebizitza asko eta asko hutsik daudela. 1996an 186 etxebizitza zeuden hutsik, eta 1999. urtea-



REZOLA
TOLARE - SAGARDOTEGIA

- Sagardoa txotxetik eta botilan
- Sagardotegiko menua
- Urte osoan irekita

• Espezialitatea:
Arkumea eta txerrikumea
burruntzian (enkarguz)

Ipintza Baserria - Santio Zeharra
© 943 55 66 37 - ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)

Rafa Garaikoetxea

Mediku Odontologoa
Kolegiatu zenbakia 415

Pelotari, 17 behea - © 943330089
ASTIGARRAGA

O.P.E. 589/95




"LABO" S.L. BURDINAK

26 Poligono Industrialdea (28 Partzela)
Tel.: 943 55 58 00 - Faxe: 943 55 75 01
ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)



PERFORACIONES Y DERIVADOS, S.L.

- Txapa zulatua eta zulatze mekanizatua
- Metal tolesgabetua
- Metalezko txamarroa
- Mailak eta burdinsareak
- Metalezko hesiak
- Forja artistikoa
- Ate metalikoak: HENDERSON



Industrialdea, 26 - Bidebitarte Ibilbidea, 124 - 13-14 lokalak
© 943 55 09 00 / 943 55 09 98 - Faxe: 943 55 09 00 - 20115 ASTIGARRAGA

VENDI Janaridenda - ISABEL -

Tomas Alba, 11 - Tel.: 943 55 23 67 - ASTIGARRAGA

ZIPOTZA TABERNA - ELKARTEA

Tomas Alba, 11 - Tel.: 943 55 79 63 - ASTIGARRAGA

giroa sor dadin», adierazi zuen Astigar Elkartearen Antton Arkak.

Hala ere, kezkatuta daude. «Indarra galtzen ari da topagune hau. Ez dugu asmatzen dinamika egoki batean sartzen. Talde bakoitza nahiko lanpetuta dabil bere lanetan, eta zaila egiten zaigu guztioi konpromiso gehiago hartzea».